

2020KO URRIAREN 1EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Bat

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hogeia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta laurden

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

BILDUAK: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

1.- AURREKO AKTA. Aurreko Aktaren onespena. 2020-07-30.

Aho batez onartu da, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- LURRALDE BATZORDEAREN PROPOSAMENAK:

a.- Obra ziurtagiriak:

- **“ALKARTASUNA LIZEOA” HLHIKO ERABILERA ANITZEKO GELAKO EBAKUAZIO-BIDEAK.** 2019PROB0007

Aho batez onartu da, “Beasaingo “Alkartasuna lizeoa” HLHIko areto balionaiztunaren ebakuaziorako bideak egokitzea” obrei buruzko likidazioa, 129.858,83 €koa (BEZ barne).

- **2020 BIDE ASFALTAKETA OBREI BURUZKO LIKIDAZIOA.** 2020ZEBO0038

Aho batez onartu da, “2020 bide asfaltaketa obrei buruzko” likidazioa, 65.400,10 €koa (BEZ kanpo).

b.- Obren lizitazioa:

- **DOLAREA PARKEA BERRITZEKO OBRAK: PROIEKTUA ETA PLEGUAK ONARTZEA ETA DEIALDIA PUBLIKOA EGITEA KONTRATATZEKO.** 2019PROB0006

Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da, aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 904.021,78 €

4.- *Egikaritze epea*: 5 hilabete

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa*: *Klasifikazioa*: *Taldea*: G 6 azpitaldea 4 kategoria

6.- *Kaudimen tekniko*:

Titulu akademikoak eta profesionalak eta, bereziki, kontratua exekutatzeko arduradunarena edo arduradunenak baita zuzenean horretaz arduratuko diren teknikarienak ere

7.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: 26 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

8.- *Adjudikazio irizpideak*:

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.

- Berme epea handitzea: 10 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Memoria teknikoa: 30 puntu.

9.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- *Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa*: *Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar direnean eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkari desorekatua duenean kontratuaren exekuzioari lotuta, enpresak, kontratua exekutatzeko eta exekuzio epe osoan zehar, gutxienez emakume langile berri bat kontratatu beharko du edo emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da, plantilla osoan emakumeak % 40tik behera badira."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu) adierazi du aspaldidanik aurreikusita zegoen proiektua dela eta kontuan izanda duen aurrekontua, beraientzat hobeagoa izango zela diru hori giza kontratuetan gastatzea, baina ados daudela obrak kontratatzearekin eta proiektua gauzatzerekin.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- IGARTZA OLETA KALEAN ORIA IBAIAREN GAINEAN DAGOEN OINEZKOENTZAKO ESPALDIA ALDATZEKO OBRAK. 2018PROB0006

Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da eta aipatutako obrak kontratatzeko proiektua eta baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 346.057,40 €

4.- *Egikaritze epea*: 8 aste

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa*:

- *Sailkapenik EZ, 500.000 eurotik beherakoa izateagatik.*

Justifikatuko da:

- *Urteko negozio bolumena, edo kontratuak aipatzen duen esparruko urteko negozio bolumena, azken hiru ekitaldietako ekitaldi onenari dagokiona, enpresaburuaren eraketa daten edo jarduerak hasteko daten eta eskaintzak aurkezteko daten arabera. Negozio bolumenak kontratuaren balio estimatua (502.721,52 €) halako bat eta erdi izan beharko du gutxienez.*

6.- Kaudimen teknikoa:

- Bitarteko hauen bidez egiaztatuko da:

a) Azken bost urteetan exekutatutako obren zerrenda, exekuzio onaren ziurtagiriek bermatuta; ziurtagiri horiek obren exekuzioaren zenbatekoa, datak eta tokia adieraziko dituzte eta zehaztuko da lanbidea arautzen duten arauen arabera egin zirela eta behar bezala amaitu zirela; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritzak eskumendunak kontratazio organoari.

b) Titulu akademikoak eta profesionalak eta, bereziki, kontratua exekutatzeko arduradunarena edo arduradunenak, baita zuzenean horretaz arduratuko diren teknikarienak ere (ikus 14. apartatua).

500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, kontratista sortu berri bat bada (horrelakotzat joko da bost urtetik beherako antzinatasuna duena), bere kaudimen teknikoa aurreko b) eta c) letretan aipatutako bitarteko batekin edo hainbatekin egiaztatuko da, eta ez da aplikatuko obra kopuru jakin bat exekutatzeari buruzko a) letran ezarritakoa.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 26 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

8.- Adjudikazio irizpideak:

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.

- Berme epea handitzea: 10 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Memoria teknikoa: 30 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa: Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar direnean eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkari desorekatua duenean kontratuaren exekuzioari lotuta, enpresak, kontratua exekutatzeko eta exekuzio epe osoan zehar, gutxienez emakume langile berri bat kontratatu beharko du edo emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da, plantilla osoan emakumeak % 40tik behera badira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Obra hau egitearekin ez gaude ados. Aipatzen diren onurak zalantzan jartzen ditugu eta uste dugu jasangarritasuna ez dela betetzen. Europatik aholku batzuk jasotzen ditugu, hain zuen ere, ibaia ez estaltzerena eta guk justu kontrakoa egiten dugu. Kapritxo bat besterik ez dela iruditzen zaigu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Ez da kapritxoa. Trafikoko azterlana egin dutenek azterlan hori azaltzea etorri zirenean esan zuten Barrendain eta Zapatari puntu beltzak direla eta horiek ekiditeko egiten da."

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "El poner doble sentido en Igartza Oleta, teniendo en cuenta que con la renovación, el parque de Dolarea va a tener mayor afluencia de personas mayores y de niños, no lo vemos."

Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV): "URAK baimendutako obra da. Estaltzen den azalera berdina kendu egin behar da egun dagoen tokitik."

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Guk ere pentsatzen dugu Igartza Oletan arrisku gehiago egon behar dela, jendearen emana gehitu egingo delako."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak 2 (Beasaingo EH Bildu eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- Kontratua luzatzea: Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua. 2020ZEBO0062

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

"AURREKARIAK

2020ko irailaren 1ean amaitzen da egun indarrean dagoen GUREAK BERDEA, S.L.U. enpresak eta Beasaingo Udalaren artean udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua eskaintzeko **sinatutako kontratuaren bigarren luzapena**

Plegu Administratiboko 3.atalak "KONTRATUAREN IRAUPENA", dio: Kontratuaren iraupena 3 urtekoa izango da. Epe hori URTE BATEKO 3 epealditan luza daiteke, betiere, espresuki eta elkarren artean adosten bada. Edozein kasutan, kontratuaren guztizko iraupena, gehienez, 6 urtekoa izango da.

Plegu Administratiboko 7.atalak "PREZIOEN BERRISKUPENA", dio:

Estatuko Aurrekontu Orokorraren 22/2013 Legeko 88a Xedapen Gehigarriak, 2014. urterako, gehigarriak ez du baimentzen inolako erreferentziarik egin dadin, berrius daitekeen prezio edo edozein moneta-babrerri dagokionez, prezioen indize orokorri edo beraien bailan honelakorik izan dezaketen formulei, aipatutako legea indarrean sartu eta ondoren hasitako kontratu publikoen espedienteetan, prezioen berrikuskapenerako.

Hori dela eta, kontratu honetan, prezioen berrikuspena egingo da, behin formalizatu eta urtebeteko epea igaro eta esleipen kopuruarekiko (BEZik gabe) %20a exekutatuta, SPKLTB-ko 89-94 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, eta zerbitzuen esleipendun suertatze den enpresak egokiro egiaztaturiko kostu finkoen igoera edo beherapenakoinarritzat hartuta.

Lehenengo eguneratze hori gehienez, % 0,5ekoa izango da, esleitutako zenbatekoaren gainean (BEZik gabe), eta muga bera izango da hurrengo eguneratzeekiko, kontratua luzatuko balitz."

TXOSTENA

Kontratuaren 3. luzapena eskatzearekin batera, Gureak enpresak Baldintza Plegu Adminis tratiboko 7.artikuluak dionarena aplikatuz kontratuaren prezio eguneratzea eskatzen du.

Ondorengo taulan azaltzen diren datuen bidez egiaztatuta gelditzen dira kostu finkoetan, hau da, pertsonalean, kontratistak enpresaren lan hitzarmena langileagoaren soldatetan aplikatuz gero bere gain hartu dituen igoerak

Kostu finkoak - soldaten garapena		
	Soldaten igoera	Soldaten kostua
2015 contrato		159.831,81€
2016	0,26%	160.247,37€
2017	1,28 %	162.290,53€
2018	1,50 %	164.724,88€
2019	1,50 %	167.195,76€
2020	1,35 %	169.452,90€

Bestalde kontuan izanik merkatuan baldintza nabarmen hobekak aurreikusarazten dizkigun aldaketarik ez dagoela, eta enpresak eskaintzen digun zerbitzuarekin konforme gaudela,

Aipatutako kontuan izanik,proposatzen da:

1. Gauzatzea kontratuaren prezioen berrikuspena %0,5eko igoera aplikatuz esleitutako zenbatekoaren gainean (BEZik gabe)2020ko irailaren 1etik 2021ko abuztuaren 31ra bitarteko epean, ondoren azaltzen den kalkuluaren arabera:

Equano prezioa	242.826,89 €
Equeratzeta: 0,5%	1.214,13€
Batuketa	244.041,02€
BEZA 21 %	51.248,62€
ZENB. BERRIA	295.289,64 €

2. Beasaingo udalerriko parke, lorategi, guner berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzuari dagokion kontratuari dagokion hirugarren luzapena gauzatzea."

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENA

a.- Kontratutik ondorioztatutako espedientea: kalteordainak ordaintzeko eskatuz ebazpena. 2018BOCU0001

Herritarrak batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

"Gaia: kontratutik ondorioztatutako erantzukizun espedientea.

AURREKARIAK

1.- 2020-05-27. Alkate jaunak ondorengo Ebazpena eman zuen:

Lehenik. GOIKUS, S.L.ren aurka kontratutik ondorioztatutako erantzukizun espedienteari hasiera ematea, Udalak ordaindu behar izan dituelako sonorizazio akatsagatik "Imanol Jazz kontzertua bertan behera geratzegatik" sortutako kalte-ordainak. II. aurrekarian esanda bezala, eszenatoki arloko betebeharreko zerbitzu teknikoak betetzea, GOIKUS, S.L.ri dagokio.

Beasaingo Udalak ordaindutako diru kopurua eta orain erreklamatzeko dena, 4.439,00 € (BEZ barne) izan da, hau da:

- Vaiven enpresarekin kontratuaren bidez adostutako katxeta: 2.900€+%21ko BEZa= 3509€
- Pianoaren alokairua: 768,6€+%21ko BEZa= 930€

Bigarren. Xabier Matarranz Rico jauna, espediente honen instruktorea izendatzea, Kultura arloko delegatua delako. Kasu honetan kontratazio organoa Gobernu Batzordeari denez, behin betiko ebazpena organo honi dagokio.

Hirugarren. Ebazpen honen berri interesatuei ematea, jakinaraziz hamabost eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ditzaketela eta baita ere probak egitea proposatu."

2.- 2020-06-23. GOIKUS, S.A.k alegazio idatzia aurkeztu zuen.

3.- 2020-06-25. Kontratuaren arduradun teknikariak, ondorengo txostena eman zuen:

"Edorta Martinez Frailek, Imanol Jazz kontzertuan gertatutakoaren inguruan egindako errekerimenduari buruz helarazi dituen alegazioei erantzuna emanez.

Alegazioek 2020ko otsailaren 7an gertatutakoa kontatzen dute Goikus Kudeaketa, S.L. enpresaren ikuspegiaren arabera. Hala ere, esandako guztiak ez du justifikatzen esleipenaren plegu teknikoan zehazten diren ardurak bete direnik. Hau da, ikuskizunaren egunaren aurretik eszenatoki arloko osagaiak ikuskatzea, funtzionamendua egiaztatzea eta matxurak konpontzea, hain zuzen ere. Behar adinako denborarekin eta ezagutzarekin ez ziren aurrelanak planifikatu eta bete. Bistan dago, besteak beste, kable bat puskatuta zegoela eta kontzertua bertan behera geratu zela.

Horrez gain, alegazioek ez dira bat etortzen kontzertua bertan behera utzi behar izan zenetik bi egunetara egin zen bileran aipatutakoarekin. Bilera horretan, Goikus Kudeaketa, S.L. enpresak, ez zuen zalantzarik azaldu eta gertatutakoaren erantzule eta arduradun zela adierazi zuen.

Honen guztiaren ondorioz, txosten hau idazten duenaren arabera alegazioak ezin daitezke onartu eta Goikus Kudeaketa S.L. izango litzateke Udalari sortutako kalteen erantzule, kontzeptu eta kopuru hauetan:

- Vaiven enpresarekin kontratuaren bidez adostutako katxeta: 2.900€+%21ko BEZa= 3509€
- Pianoaren alokairua: 768,6€+%21ko BEZa= 930€

Guztira: 4439 €

4.- 2020-07-02. Instruktoarek emandako Ebazpen proposamena, alegazioak deuseztatuz eta proposatuz GOIKUS, S.A.ri kalte ordainen ordainketa errekeritzeko.

5.- 2020-07-27. GOIKUS, S.A.ren alegazio idatzia.

6.- 2020-07-28. Kontratuaren arduradun teknikariaren txostena, hots:

“2020ko uztailaren 2ko ebazpen proposamenaren ondoren, Edorta Martinez Frailek 2020ko uztailaren 27an egiten dituen alegazioei erantzuna honakoa adieraziz.

Goikus Kudeaketa S.L. enpresak jakinarazi nahi duela, besteak beste, onartzen duela enpresaren ardura dela ekipo guztien funtzionamendu egokia egiaztatzea eta ez diola uko egiten ardura horri. Hala eta guztiz, nahiz eta kudeaketan arduragabekeriarik ez egon, kablearen egoera zein zen ezin izan zutela jakin arazoak ematen hasi arte; hau da, bisualki ezin zela egiaztatu kontaktu egokia egiten zuen barrutik askatuta zegoelako eta, are gehiago, batzuetan kontaktu zuzena egiten zuelako eta beste batzuetan ez.

Beasaingo Udalak ez du baloratuko ez kablearen egoera, ez batzuetan kontaktu ona egiten zuen edo ez. Kontzertua aurrera eramateko zailtasunak azaldu ziren eta azkeneko momentuan bertan behera geratu zen arazo teknikoak medio.

Vaiven enpresak, behar teknikoen artean eskatu zuela soinuiztapenean aditu bat sonorizazio lanetarako. Goikus enpresak ohiko teknikoak jarri zituen lan horietarako.

Plegu teknikoen arabera, Goikus Kudeaketa S.L. enpresa da, besteak beste, soinuiztapenaren mantenuaren arduraduna.

Beraz, Beasaingo Udalak, Goikus Kudeaketa S.L. enpresari, erantzule gisa, kontzertua bertan behera geratu behar izateagatik sortutako kalteen ordaina eskatzen dio.

- Vaiven enpresarekin kontratuaren bidez adostutako katxeta: 2.900€+%21ko BEZa= 3509€
- Pianoaren alokairua: 768,6€+%21ko BEZa= 930€

Guztira: 4439”

OINARRI JURIDIKOAK

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Administrazio Publikoak administrazio kontratuetan dituen prerrogatibak: 190. (Kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotz dakiokkeen erantzukizuna deklaratzeko) eta 191. (hori egiteko prozedura) artikulua.

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:

Lehenik- GOIKUS, S.A.k aurkeztutako alegazioak ez onartzea, kontratuaren arduradunak emandako txostenean aipatzen diren arrazoiengatik.

Bigarren. “Imanol Jazz kontzertua” bertan behera geratzegatik Udalari eragindako kalteordainak ordaintzeko errekerimendua egitea GOIKUS, S.A.ri. Kalteordainen kopurua eta kontzeptua, ondorengoa da:

- Vaiven enpresarekin kontratuaren bidez adostutako katxeta: 2.900€+%21ko BEZa= 3509€
- Pianoaren alokairua: 768,6€+%21ko BEZa= 930€
- **Guztira: 4439€”.**

Hirugarren. Erabakiaren berri GOIKUS, S.A.ri ematea, adieraziz beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsiak.”

4- ESKAERA ETA GALDERAK

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.